



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

2020ko apirila

“D ereduko kirola” ikerketa aplikatu berria

2020-2022 proposamena

Definizio-txostena



Aurkibidea

| | | |
|-----|---|----|
| 1 | SARRERA..... | 2 |
| 2 | GAIAREN GAINEKO AURREKARIAK..... | 3 |
| 2.1 | “D ereduko kirola” ikerketaren ondorioak (2016-2018)..... | 3 |
| 2.2 | “D ereduko kirola” ikerketaren jarraipena (2019)..... | 3 |
| 2.3 | Kluba euskararentzako babesgune?..... | 4 |
| 2.4 | Ziklo berriaren ikuspegia | 4 |
| 3 | ZIKLOAREN HELBURUAK ETA IKERKETA-GALDERAK | 5 |
| 4 | METODOLOGIA | 6 |
| 4.1 | Ikergaiaren definizioa eta ezaugarriak | 6 |
| 4.2 | Ikerketa-faseak..... | 6 |
| 4.3 | Proiektua garatzeko guneak | 8 |
| 4.4 | Ikerketa-emaitzen aplikagarritasuna | 8 |
| 5 | PROIEKTUAREN EMAITZAK | 10 |
| 5.1 | Emaitzen zabalkundea | 11 |
| 6 | ANTOLAKETA | 12 |
| 6.1 | Garapen-taldea | 13 |
| 6.2 | Ikerketa-taldea | 14 |
| 6.3 | Aplikazio praktikorako taldea | 14 |
| 6.4 | Foroa edo mintegia | 15 |
| 7 | LAN PLANA ETA KRONOGRAMA | 16 |
| 7.1 | 2020. urteko egitasmoa | 17 |
| 8 | ERANSKINAK..... | 18 |
| 8.1 | Lantaldeetako partaideen funtzioak..... | 18 |

1 SARRERA

Nolako aukerak dituzte gaur egungo 12 eta 16 urte arteko haurrek eta gazteek euren bizitza euskaraz egiteko? Gehienei, eskolak eskaintzen die euskaraz aritzeko esparru bat, baina hortik kanpo? Galdera horiek izan ziren 2016. urtean martxan jarritako “D ereduko kirola” ikerketa-ekintza proiektuaren abiapuntu.

Hain justu ere, haurren eta gazteen aisialdiaren esparruan, kirolean alegia, kokatu zen proiektua (zehazki, kirol federatuan). Bertan ezagutu zen euren kirolean euskaraz aritzearen bueltan zein bizipen dituzten. Horretarako, hurbileko ikerketa burutu zen, izan ere, klubetan bertan esku hartu zen entrenatzaile eta jokalarik gazteekin mintzatuz eta kirol-giroaren behaketa bertatik bertara eginez. Horrela, haiei eman zitzaien protagonismoa, haur eta gazte horien ahotsak hurbilagoetik ezagutzea baitzen helburu.

“D ereduko kirola” izeneko ikerketa-ekintza hori 2016tik 2018ra garatu zen, eta hiru urte lanean eman ondoren, aurreko prozesuan ibilitako eragile guztiek baloratu genuen positiboki proiektuaren emaitza, eta berretsi genuen lan-ildo honetan urrats berriak ematen jarraitzeko interesa eta beharra: bai **gazteak-kirola-euskara** hirukoaren inguruko ikerketan eta lanketa teorikoan, eta bai ikerketa-lan horretan lortutako gakoak eta ondorioak kirol arloko eragileekin praktikara nola eraman lantzearen aldetik.

2019. urtean zehar, 2016-2018 zikloaren emaitzak argitaratu eta zabaltzeaz gain, horien aplikazio praktikorako lehen urratsak eman dira (Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Soziolinguistika Klusterraren eskutik, Gipuzkoako bi klubetan: UDA eta Erreala). Horrez gain, urtearen azken hiruhilekoan, lan-ildo honen ziklo berri bat osatzeko aukerak landu dira aurreko zikloa gidatu zuten EHUko ikerlariekin. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzako arduradunekin eta teknikariek kontraste-lanak burutu dira, 2020. urte hasieran.

Lanketa horren guztiaren emaitza da txosten hau, 2020-2022 eperako hiru urteko ikerketa aplikatu baten diseinua jasotzen duena. Diseinu berri honek jarraipena ematen dio orain arteko lanari, gai jakinetan sakonduz eta helburu orokor gisa aurrekoa mantenduz: haur eta gazteen euskarazko sozializazioa kirol esparruan indartzeko ezagutza gehitzea, eta ezagutza horretatik ondorio, neurri eta baliabide praktikoak lortzea.

Txosten honetan deskribatzen dira, beraz, ziklo berriaren zertzelada nagusiak, ikerketa aplikatu berriaren prozesua abiatzeko lagungarri izango delakoan.

2 GAIAREN GAINEKO AURREKARIAK

2.1 “D EREDUKO KIROLA” IKERKETAREN ONDORIOAK (2016-2018)

2016 eta 2018 urteen artean, kirol klubuen esparruan, gaztetxoei euskara gehiago erabiltzeko aukerak nola handitu aztertu da, Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera, “D ereduko kirola” proiektuan (ikerketa eta ekintza). Hala, ziklo berriak oinarri gisa baliatuko du ikerketa-ekintza hori¹.

“D ereduko kirola” proiektuko ondorio nagusiak [laburpen liburuxka honetan](#) jaso ziren. Bereziki kontuan hartzekoak dira proiektu hartan aurrera begira lantzeko proposatutakoak: besteak beste, “euskararen eta gaztetxoaren begiradatik, kirola birdefinitzeko beharra” mahai-gaineratu zen (Soziolinguistika Klusterra, 2019, 17.or.); hau da, kirolaren “izaera hobeto ezagutu eta bertan garatu nahi den estrategia definitu beharra dagoela” (Soziolinguistika Klusterra, 2019, 17.or.) jaso zen.

Hala, “kirol eremuan gaur egun parte hartzen duten agente bakoitzaren zeregina sakonki aztertu edota berraztertu behar dugula pentsatzen dugu. (...) Klubuen gaineko erakundeak (federazioak, eta abar.), klubak, kirolarien taldeak (entrenatzaileak eta gazteak) eta gazte hauen tutore edota gurasoak dira eremu horretako protagonistak. Bakoitzak duen zereginen gainean gogoetatzea garrantzitsua iruditzen zaigu” (Soziolinguistika Klusterra, 2019, 17.or.).

Hain zuzen ere, modu horretan zehaztuko baitira kirola euskararentzako gune babestua izateko estrategiak: “Erreminta eta estrategia zehatzak, egokituak eta aproposak diseinatu eta garatu behar dira, batetik, kirol eremua hizkuntzaren ikuspegitik gune babestua izateko, eta, bestetik, kirolari guztiei gune horretan eurentzako aproposa den toki bat izateko, beti ere, euren gozamina eta gazteen agentzia (edo ekimen propioa) bereziki zainduz” (Soziolinguistika Klusterra, 2019, 18.or.).

2.2 “D EREDUKO KIROLA” IKERKETAREN JARRAIPENA (2019)

2019. urtean, 2016-2018ko ikerketa-zikloko ondorioetatik aplikazio praktikoa bilatzeko ahalegina egin dute Soziolinguistika Klusterrak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Zehazki, 12-16 urteko gazteek kirol arloan euren euskarazko sozializazioa osatu edo indartze aldera, ordura arte identifikaturiko gakoetatik aplikazio praktikora igarotzeko lanketa bat abiatu dute bi klubetan: Aretxabaletako UDA klubean eta Real Sociedad klubean.

Bi klub horietan, aplikazio praktikora hurbiltzeko prozesu bana abiatu da. Klubetako ordezkarien eta “D ereduko kirola” proiektuan aritutako teknikarien arteko bileretan, aplikazio horretarako aukerak aztertu eta identifikatu dira. Hala, bi kasutan proiektuari jarraipena emateko egokiak izan litezkeen zenbait gai eta ideia landu dira.

Oraindik zabalik dago prozesu hau, baina 2020. urtean zehar jarraipen-lan horiek amaitzea aurreikusten da.

¹ Bertan, aintzat hartu ziren alde aurretik hainbat eragilek egindako lanak eta pilotutako ezagutza (udaletako euskara eta kirol teknikariak, ikastetxeak, kirol eta aisialdi taldeak...): GFaren “Kirola eta gazteak proiektu elkartua”, Euskararen Aholku Batzordeko Gazteen lantaldea, eskola-kirola egitasmoetan norabide honetan egindako esperientzia aurreratuak, “Begiraleek asko egin dezakete” lanaren aplikazioaren bidetik eginikoak, 2016ko apirilko Udaltop jardunaldiak (Kirola D ereduan, noizko? Nork eta zer egin genezake gazteen euskarazko kirol jarduna ziurtatzeko?).

2.3 KLUBA EUSKARARENTZAKO BABESGUNE?

Badira beste testuinguru batzuetan garatzen ari diren hainbat lan eta kontzeptu, lan-ildo honetarako interesgarri izan litezkeenak. Adibidez, *hiztun berrien* ikerketetan lantzen ari direnak, hizkuntzaren ikaste-prozesuetan murgilduta dauden pertsonen ikerketetan agertzen direnak eta abar (dela “hizkuntza-soziabilitate zaindua”, dela Pujolar-en “safe space”, “muda” kontzeptua bera...). Espazioei edo guneei loturiko ideiak ere badaude tartean (euskaraz egitea “justifikatua” dagoen espazioak, edo hala egiteak “zentzu” bat dutenak (eta ez dutenak)...), eta abar.

Kontzeptu, ikerketa eta hausnarketa horietako batzuk erreferente oso baliagarriak izan litezke lan-ildo honetarako (maila teorikoan edota metodologikoan), eta gainera, 2016-2018 zikloa gidatu zuten EHUko ikerlariak harreman zuzena dute aipatu kontzeptu horien inguruan lanean ari diren soziolinguistika arloko erreferentziazko ikerlariekin. Hori hala, ziklo berriaren lehen urratsa lanketa teoriko-metodologiko bat izatea proposatzen da, aurreko zikloan ateratako zenbait gakotan sakonduko duena eta ziklo berrirako oinarria jarriko duena (besteak beste, “babesgune” kontzeptuaren inguruan ardaztuko dena).

Lanketa horrek ikuspegi teorikoa izango du, bistan da, baina baita praktikoa ere. Izan ere, 2016-2018 zikloko ondorioetako bat izan da kirola “eskolaren” eta “kalearen” arteko hirugarren esparru izan litekeela, bien arteko lotura eginaz, eta modu horretan gazteek eskolan jasotako euskarazko oinarri (askotan ahula) sendotuz eta aberastuz. Aldaketa horrek, besteak beste, eskatzen du kirol klubak “euskararentzako babesgune” izatea praktikan, eta gazteek hala hautematea. Halako babesguneek behar dituzten ezaugarrien gaineko hausnarketa eta lanketa teoriko-metodologikoa izango da, beraz, 2020-2022 ziklo berri honen lehen urratsa.

2.4 ZIKLO BERRIAREN IKUSPEGIA

Ziklo berriaren bitartez sortuko den ezagutza teoriko-praktikoak baliagarria izan behar du haurren eta gaztetxoek euskarazko sozializazioa eskolako eremutik kanpo indartzeko eta osatzeko. Beraz, interes soziolinguistikoko handiko gai batean kokatzen da proiektua, euskararen biziberritze bidean etengabe aipatzen baita haurren eta gaztetxoek erabileraren areagotzeko eremu natural berriak eskaintzeko beharra.

Bestalde, aipatzekoa da ziklo berria haurren eta gazteen aisialdian eta sozializazioan kokatzen bada ere, proiektuak helduak dituela bereziki gogoan, haiengan jartzen du arreta eta erantzukizuna. Helduak dira euskarazko sozializazio hori indartu edo osatzeko nahia dutenak (errealitatea aldatu) eta haiek eman behar dute pausoa. Alde horretatik, haurren eta gazteen erabileran zuzenean eragiten baino, helduen aldetik euskaraz funtzionatzen duen esparru bat eratzeko urratsak nola eman esango duten gakoak ekartzea izango da proiektuaren xede nagusietako bat.

Zentzu horretan, aisialdiaren esparruan, eta bereziki kirol klubetako material/norabide beharrari ere erantzun nahi dio ziklo berriak. Burututako esku hartzeetan ikusi da gai hau lantzeko interesa egon badagoela, baita premia ere. Eta pentsatzen dugu, interes eta aukera horiei erantzungo dioten tresna berriak eta zehatzak eraginkorrakoak izango direla halako ikerketa-egitasmoen testuinguruan sortzen badira.

3 ZIKLOAREN HELBURUAK ETA IKERKETA-GALDERAK

“D ereduko kirola”ren 2016-2018 zikloak abiatutakoari jarraipena eman eta gai jakinetan sakontzea du xede ziklo berri honek. Hau da, 2016-2018 urteetako ibilbidean agertutako zenbait lan ildo, ideia eta planteamendu sakontasunez jorratu nahi dira. Beraz, **helburu nagusia da gazteak-kirola-euskara hirukoteak osatzen duen eremua hobeto ezagutzea**, bertan modu eraginkorrago batean jarduteko.

Orain arte jasotako informazioarekin, hainbat ikerketa-galdera sortu dira:

- Zertaz dihardugu kluba euskararentzako babesgune izan behar duela esatean?
- Klubek zein neurri zehatz har ditzakete norabide horretan?
- Zein aukera daude klubetan neurri horiek aplikatzeko? Zein oztopo? (entrenatzaileengan, zuzendaritzarengan, langileengan, bolondresengan... arreta jarriz)

Galdera horiei erantzun nahi die proiektu berriak. Horretarako, honako hiru helburuak hartuko dira aintzat:

- 1) **Kluba euskararen babesgune gisa definitzea.** Euskararentzako kirol-aisialdi babestua zertan datzan zehaztea, kirol klubentzako ikuspegitik.
- 2) **Definizio hori kirol eremuan parte hartzen duten eragileekin edo protagonistekin kontrastatzea edo testatzea:**
 - a. Klubaren **zuzendaritza-taldearen** eta bertako **laguntzaileen** nahiz **langileen** errealitateetara hurbiltzea babesgunearen kontzeptu hori.
 - b. **Entrenatzaileen** figurari dagokionez, kluba euskararentzako babesgune izateko beharrezkotzat jotzen dituzten baldintzak, elementuak edo baliabideak hautematea.

Aurreko zikloan bezala, ahalegin berezia egingo da gaiaren inguruko lanketa teorikoan eta ikerketan, aplikagarritasuna eta ikuspegi praktikoa uneoro kontuan izateko. Gainera, proiektuaren baitan, kirol klubetan esku hartzeak gauzatzeko moduko euskarriak sortzea aurreikusi da. Horrela, helburutzat jotzen da

- 3) euskararen babesgune izateko norabidean **kirol klubentzat baliagarri izan daitezkeen material edo tresna praktikokoak sortzea.**

Ildo horretatik, egitasmo berriaren barnean txertatu da 2016-2018 zikloan erabilitako materiala kirol klubentzako esku hartzearen prozesua ere. Izan ere, modu pilotuan, material bat (“Unitate Didaktikoa”) sortu zen kirol talde batean hiru gai hauek lantzeko: a) taldeko barne komunikazioa, b) taldearen identitatea edo izaera, c) euskararen erabilera taldearen egunerokoan. Ikerketan parte hartutako hiru taldeetan ikusi zen material hori baliagarria dela hizkuntzaren gaia kirol klubetan modu berri batean lantzeko. Balorazioa oso positiboa izan zen hiru kasuetan, baina ez da ahaztu behar lanketa horiek baldintza berezietan egin zirela (EHUko ikerlarien jarraipena, arreta edo mimo bereziarekin...). Horregatik, material hori interesa duen edozein klubetan edo kirol taldeetan erraztasunez erabiltzeko moduan jarri nahi da.

4 METODOLOGIA

4.1 IKERGAIAREN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

Proiektu berriak 3 urteko zikloa izango du, 2020-2022 bitartean garatuko da, alegia. Aurreko zikloan bezalaxe, ikerketa teoriko-aplikatua izango da ziklo berrikoa ere; hau da, ekintza eta ikerkuntza prozesu berean inplikaturik egongo dira.

Hala, lehen zikloan bezala, bigarren honetan ere, gaiari buruz egiten den ikerketan eta esku hartzean oso kontuan izango da gerora ezagutza hori kirol arloan modu praktikoa aplikatzeko aukera. Alde batetik, kluba euskararentzako babesgune izateak zer inplikazio izan ditzakeen zehaztuko da, eta, beste alde batetik, ikerketa-lanaren norabidean, kirol klubetan gai hauek lantzeko dagoen proposamenak eta materialak landuko dira.

Ikerketa-unibertsitari dagokionez, 12 urtetik 18ra bitarteko gaztetxoekin kirol eremuaz jardungo dugu². Zehazki, kirol eskolak, klubak edota federazioak aztertuko dira, ez Eskola Kirola.

4.2 IKERKETA-FASEAK

Ikerketa ziklo berriak hiru fase izango ditu:

1. FASEA: literatura zientifikoaren azterketa, kluba euskararen babesgune gisa definitzeko.

Aurreko zikloan ondorioztatu zen moduan, klubak euskararentzako babesgune interesgarriak izan daitezke, bertan, euskarak gazteen gozapenarekin eta sozializazioarekin bat egiteko aukera duelako. Erabilera lantzeaz aparte, kirolaren bitartez gazteek hizkuntzarekin harreman berri bat eraikitzeak aukera izan dezakete (famiariarekin edota eskolarekin zerikusia ez duena). Zentzu horretan, kirol eremuak eta zehazki, klubak, babesgune bezala irudikatzeak behar diren tresna teoriko, kontzeptual eta metodologikoak landu nahi ditugu ikerketa-ekintzaren lehenengo fase honetan. “Babesgune” kontzeptuaren lanketa teorikoa egingo da, kluba euskararen babesgune gisa definitu ahal izateko oinarria lantzeko.

Horretarako, orain arte bildu den materiala berriz aztertuko da gako baliagarriak topatu nahian. Gainera, beste testuinguruetan garatutako lanak jaso eta ikertuko dira erreferente gisa balio dezaketen ereduak (teorikoak edota metodologikoak) eskuratzeko asmoz.

Helburua kirol klubak (euskararentzako) babesgune gisa izendatzen ditugunean zer esan nahi dugun zehaztea litzateke, bai maila teoriko-kontzeptualean, bai maila aplikatuan.

² 2016-2019 zikloan, 12-16 urte bitarteko gaztetxoak izan ziren aztergai. Proiektu berrirako, interesgarria dirudi adin-tartea zabaltzea, eta gazte helduagoen bizipenak kontrasterako erabiltzea. Kirol klubak eta taldeen aukeraketa egiteko, irekita utziko da aukera hori.

- 2. FASEA: definizio teoriko-praktiko hori kirol elkarteetan testatzen: ZUZENDARITZA, LANGILEAK, BOLUNTARIOAK.** Klubeko zuzendaritza taldea zein bestelako boluntario edota langileen bizipenak eta iritziak jaso.

Aurreko fasean egindako lanketaren ondorioz, kirola, oro har, eta, bereziki, klubaren egitura babesgune gisa izendatzeko behar diren oinarritzko elementuak definituta edukiko genituzke. Une honetan beraz, horien kontrasteari ekingo genioke. Kontraste hori kirol eremuan parte hartzen duten eragile edo protagonista ezberdinekin egingo genuke.

Hasteko, klubaren zuzendaritza taldearengana eta klubean bertan laguntzaile zein langile aritzen diren beste pertsonengana joko genuke. Beraien praktika eta egunerokotasunetik eratorritako esperientziak, bizipenak eta gogoetak jaso nahi dira, aurretik teorikoki eta kontzeptualki landutakoa euren errealitatean lurra hartzeko. Modu horretan landu ahal izango dira halakoengan eragiteko gakoak, ikuspegiak nahiz baliabideak.

Horiek horrela, hiru urtetarako aurreikusten den proiektu honen amaieran, klubaren egiturari eta antolaketari eragiten duten pertsonen testigantzak eta hausnarketak ere jasota geratutako lirarteke.

- 3. FASEA: definizio teoriko-praktiko hori kirol elkarteetan testatzen: ENTRENATZAILEAK.** Entrenatzaile gazteen (hizkuntz) bizipenak jaso.

Klubak euskararen babesgunea izateko dituen aukerak aztertu ondoren eta zuzendaritzakoekin, langileekin nahiz boluntarioekin kontrastatu ondoren, entrenatzaile gazteengana joko genuke.

Gazte hauek euskararen inguruan dituzten bizipenak eta iritziak jasotzea litzateke helburua, pilotutako esperientzietatik egin ditzaketen gogoetak eta ekarpenak biltzeko asmoz. Kasu honetan, eta entrenatzailearen figurari dagokionez, kluba euskarentzako babesgune izateko beharrezkotzat jotzen dituzten baldintzak, elementuak edo baliabideak hautematea izango litzateke helburua.

Esandakoari gehitu behar zaio, entrenatzaile hauen profila zehazteari begira, interesgarria jotzen dugula hiztun berriak diren gazteak lehenestea (esklusiboki ez izan arren), hiztun profil hori soziolinguistikoki lehentasunezkoa baita (eta kopuru aldetik gero eta zentralagoa).

Hala, lehenengo fasean landutako planteamendu teorikoa osatuko genuke kirol klubetan behatutako elementu eta ezaugarri zehatzekin. Horixe litzateke ikerketaren ildoaren azken emaitza.

Ikerketa-diseinu honen arabera, kirol elkarteekin orpoz orpo egingo da lan, eta ikerketarako informazio kualitatiboa bilduko da. Hala, ikerketa-teknikei dagokionez, hizkuntza-etnografia izan liteke horretarako bide emankor bat. 2016-2019 zikloan egin bezala, elkarrizketak, behaketak eta talde dinamikak baliatuko direla aurreikus daiteke. Dena den, ikerketa-prozesuan zehar definituko dira beharrezko ikerketa-teknikak, hala eskatzen baitu ikerketa-erritmoak; hau da, fase bakoitzaren metodologia gehiago zehaztean definituko dira azken kontu tekniko horiek.

4.3 PROIEKTUA GARATZEKO GUNEA

Proiektua zenbat eta zein kirol elkarteetan garatuko den ikerketa-prozesuan zehar definituko da, zehazki 2020ko udaberrian. Aurreko zikloan egin bezala, kirol klubak hautatzeko honako irizpide hauek erabiliko dira:

1. Lurraldetasuna
2. Kirolen aniztasuna
3. Generoa

Gainera, proiektu berriaren helburua gaian sakontzea denez, aniztasun gehiagorekin jokatzeko aukera dago, kontrasterako informazioa eskuratzeko:

- 2016-2019 zikloan, hizkuntzarekiko gutxieneko konpromiso-maila adierazten zuten kirol klubak izan ziren aztergai; proiektu berrian, tipologia desberdineko kirol klubak hauta litezke (hizkuntzarekiko bereziki konprometituak ez daudenak ere azter litezke, alegia)
 - o Kirol klubak tipologia baten arabera sailkatzeko, Erreferentziazko Marko Estandarra (EME)³ tresna baliagarria izan daiteke.
- Gauza bera egin liteke adinarekin: 2016-2019 zikloan, adin-tarte antzekoa zuten kirol taldeak hautatu ziren; proiektu berrian, adin-tarte ezberdinetako kirol taldeak azter litezke.

Era berean, kontuan hartuko da 2019. urtean UDArekin eta Errealarekin egindako lanketa. Litekeena da bi klub horiek ere proiektu berrian tokia izatea.

Irizpide horien aplikazioa eta guneen hautua garapen-taldean adostuko da.

4.4 IKERKETA-EMAITZEN APLIKAGARRITASUNA

Emaitza zientifikoak edo akademikoak eskuratzear gain, ikerketaren helburuetako bat izango da kirol klubetan esku hartzeko aplikazio praktikoak proposatzea. Hau da, alde batetik, ikerketaren bidez ezagutza soziolinguistiko berria eskuratu da, eta, beste alde batetik, kirol klubetan interbenitzeko tresnak edo horietarako oinarriak sortuko dira.

Zaila da ziklo berri honek zein material sortzeko oinarriak utziko dituen irudikatzea, baina honako adibide hauek bururatzen zaizkigu:

- Euskararentzako arnagune izateko funtzioa hobeto bete dezaten, kirol klubek hausnarketa bideratzeko materialaren oinarria (edukiaz ari gara, gako teorikoez edo diskurtsoez)
- Euskararentzako arnagune izan daitezen, kirol klubek entrenatzaileei eskaini beharreko neurrien definiziorako oinarria

³ <http://www.euskadi.eus/erreferentzia-marko-estandarra-eme/web01-a2sekpri/eu/>

Aplikazio praktiko horiek lantzeko, eskuz esku egingo da lan kirol mundua gertutik ezagutzen duten aholkulari batzuekin. Izan ere, kirolaren funtzionamendua eta antolamendua ezagutzea ezinbestekoa da, material edo tresna praktiko eraginkorrak lortzeko. Aholkulari horiek eskainiko digute beharrezko ikuspegi hori.

Era berean, pedagogia, gazteak edo komunikazioari begira egongo den norbait egoteko saiakera egingo da, kanpo-begirada eskaini dezan eta ideia berriak proposa ditzan. Izan ere, aplikazio praktikoak proposatzeko modu sortzailean, ekintzailean eta dinamikoan lan egitea beharrezkoa izango da, betiere ikerketaren ildoko ideiak uztartuz.

Hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da proiektu honen baitan sortuko diren material praktikoetarako oinarri horiek izaera pilotua izango dutela. Hau da, kirol munduan eragiteko tresna baliagarriak sor daitezkeelakoan gaude, baina 2020-2022 epealdirako ez da aurreikusi tresna horien eraginkortasuna ebaluatzerik.

5 PROIEKTUAREN EMAITZAK

“D ereduko kirola” proiektu berriaren bidez, urtez urte, bi eratako emaitzak eskuratuko dira: ikerketari dagozkionak eta aplikazio praktikoari begirakoak. Zehazki, honako irudi honetan agertzen diren emaitzak utziko ditu:

EMAITZAK



Kluba euskararentzako babesgune

Definizio praktikoa eta aplikatzeko materiala

5.1 EMAITZEN ZABALKUNDEA

Aldi berean, proiektu honen bidez sortuko den ezagutza hedatzeko bokazioa izango dugu.

- Emaizta akademiko-zientifikoei dagokienez, eremu horretako zabalpenerako aukerak landuko ditugu aldiro (jardunaldiak, kongresuak, aldizkariak...; bertakoak edota nazioartekoak),
- eta material praktikoen zabalpenari dagokionez, erabiltzaileen esku jarriko dira, erakunde babesleekin adostutako zabalpen-bideak baliatuz. Esaterako, material praktikoa webgunean jarri eta aurkezpen publiko bat eginez; dimentsio handiagoko ekitaldiren bat edo jardunaldiren bat antolatzeko beharra ikusiko balitz, aurreikus liteke erakunde babesleen esku utziko dela horren antolaketa.

2016-2018 urteetako zikloarekin egin bezala, 2022. urte amaierarako edo 2023. urte hasierarako, ikerketa-zikloaren itxiera eta eskertze-ekitaldia aurreikus daiteke.

6 ANTOLAKETA

Ikerketa-egitasmo honetako helburuak behar bezala betetzeko, proiektuan zehar honako eragile hauen parte hartzea sustatu nahi da:

- Ikerketaren zuzendaria eta unibertsitateko ikerlariak (EHU)
- Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoa
- Erakunde finantzazaileretako arduradunak eta (euskara zein kirol) teknikariak
- Kirol arloan hizkuntza gaiari erreparatzen dien aholkulariak
- Kirol zerbitzuak eskaintzen dituen aholkularitza-enpresak
- Soziolinguistika Klusterreko bazkideak (uneotan kirol arloan proiekturen bat martxan dutenak)
- Kluba dagoen herriko udal (euskara zein kirol) arduradunak eta teknikariak
- Kirol klubak edo federazioen, herrietako euskara elkarteak... ordezkariak
- Tresna praktikoa sortzeko bidean, gazteak-komunikazioa-pedagogia eremuko aholkulariekin ere harremanetan egotea aurreikus dezakegu

Asko dira aintzat hartu beharreko eragileak, eta ez da komeni lantalde zabalik sortzea, ikerketa aplikatuaren prozesua eraginkortasunez garatzeko. Hala, hiru talde nagusi eratuko ditugu:


- Garapen-taldea: proiektuaren (bere osotasunean) jarraipenaz arduratuko da, ikerketaren eta aplikazio praktikoa errealizatzeko. (gehienez 8 kide)
- Ikerketa-taldea: ikerketaren ildoak jorratzeaz arduratuko da. (gehienez 5 kide)
- Aplikazio praktikorako taldea: ikerketa-emaitzen aplikagarritasuna lantzeaz arduratuko da. (gehienez 3 kide)

Lantalde horiek lurralde ezberdinetako kideekin osatu nahi ditugu; hau da, lantaldeetan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ordezkariak egon daitezkeen nahi dugu (oraingoz behintzat, hiru lurralde horietako ordezkariak).

Ezinezkoa izango da hasieran aipatutako eragile guztiak lantaldeetara gonbidatzea. Beraz, urtean behin foro zabalago bat edo mintegi bat deitzeko aukera jarri nahi dugu mahai gainean.

Ezbairik gabe, ikerketa-prozesu osoan zehar ezinbestekoak izango dira koordinazio-lanak. Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria arduratuko da lan horiez.

ANTOLAKETA "D ereduko kirola" (2020-2022)



6.1 GARAPEN-TALDEA

Garapen-taldea ikerketa aplikatua garatzeko funtsezko zutabea izango da, bertan hartuko baitira erabaki nagusiak. Oro har, honako egiteko hauek izango ditu garapen-taldeak:

- Proiektuaren koordinazio eta jarraipen orokorra
- Ikerketaren oinarriak lantzea eta adostea
- Ikerketa izango diren kirol klubaren lokalizazioa
- Ikerketa-emaizten aplikagarritasuna lantzea
- Foro zabalen edo mintegien antolaketa

Garapen-taldeak honako kide hauek izango ditu: zuzendaria, erakunde finantzatzaileen euskara eta kirol teknikariak, kirol arloan hizkuntza-gaiei erreparatzen dien aholkulari bat, kirol zerbitzuak eskaintzen dituen aholkularitza-enpresa bateko ordezkaria⁴, Soziolinguistika Klusterreko bazkide bat, Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria.

Hala, garapen-taldeak urtean zehar bizpahiru bilera egingo dituela aurreikus daiteke. Urtez urteko egitasmoak zehaztean, adostuko dira urte bakoitzeko bilera kopurua.

⁴ Garrantzitsua da kirol zerbitzuak eskaintzen dituen aholkularitza-enpresa egokienak identifikatzea. 2020. urtean zehar horiek zeintzuk izan daitezkeen landu daiteke, eta, beharra ikusiz gero, datozen urteetarako garapen-taldeko kide izateko gonbidapena luzatu. Horretarako, urtez urte ebaluatuko dugu ikerketa aplikatuko helburuen betetze-maila eta lan-jarduna.

6.2 IKERKETA-TALDEA

Proiektuaren zuzendaria Jone Miren Hernandez (EHU) izango da. Ikerketarako irizpideen eta metodologiaren definizioaz eta gidaritzaz arduratzeaz gain, ikerketa-taldearen lanaren jarraipena egingo du.

Hala, beste hiruzpalau ikerlarik osatuko dute ikerketa-taldea, Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria ere tartean dela.

Oro har, honako egiteko hauek izango ditu ikerketa-taldeak:

- Ikerketako irizpideen eta metodologiaren lanketa, egokitzapena eta aplikazioa.
- Ikerketa-lanaren antolaketa eta gauzpen nagusia (lan jakinetarako laguntzaileak izan litezke).

Urtean zehar, behar adina bilera egingo ditu.

6.3 APLIKAZIO PRAKTIKORAKO TALDEA

Aplikazio praktikorako taldea hiru kidek osatuko dute: erakunde finantzatzaileko (kirol edo euskara) teknikari bat, kirol elkarteekin lanean diharduen norbait⁵ eta Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria. Kide horiek garapen-taldeko kide ere izango dira, lotura errazte aldera. Gidaritza kirol munduko kideek eraman dezaten sustatuko da.

Aplikazio praktikorako taldearen egiteko nagusia izango da klubetan esku hartzeko tresna praktikoaren diseinua lantzea. Hots, ikerketan erabilitako materiala produktu praktikoko batean bihurtzeko oinarria proposatzea edo ikerketa-emaitzak klubetan aplikatu daitezkeen tresnen oinarriak proposatzea.

Horretarako, modu honetan funtzionatuko du:

- Aplikazio praktikorako taldeak foroko edo mintegiko ideia zaparrada landu eta antolatuko du, eta garapen-taldeari aurkeztuko dio.
- Garapen-taldeak enkargua egingo du: zein motatako produktua sortu nahi den, nori zuzendua, ikerketaren ikuspuntutik zein den errespetatu beharreko gutxieneko oinarria...
- Aplikazio praktikorako taldeak tresna praktikokoaren edo produktuaren diseinu proposamena landuko du, eta garapen-taldeari aurkeztuko dio, ekarpenak egin ditzaten.
- Amaitzeko, garapen-taldearen ekarpenak jasoko ditu, eta azken proposamena itxiko du.

Garapen-taldearen enkargu motaren arabera, eskuratu nahiko den produkturako, litekeena da bestelako aholkulari batzuekin kontsultak egin behar izatea. Kasu horietan, aurreikus liteke une jakinetan kanpo-begirada eskainiko duen norbaitekin kontrasteak egingo direla (dela ikuspuntu pedagogikoa, dela haurrei edo gazteei begirako egitasmo berritzaileen ikuspuntua, dela ikuspuntu komunikatiboa...). Kasuan kasu aztertuko da zer-nolako beharrak dituen aplikazio praktikorako taldeak, eta behar horiei erantzuteko neurriak hartuko dira.

⁵ Enkarguaren arabera, erakunde finantzatzaileko teknikariaren eta Soziolinguistika Klusterreko ikerlariaren artean erabakiko da nork landu tresna praktikokoaren diseinu proposamena.

Aplikazio praktikorako taldeak behar adina bilera egingo ditu, behin fase bakoitzeko ikerketa-emaizak foroan edo mintegian aurkeztu ostean.

6.4 FOROA EDO MINTEGIA

Foro edo mintegi horren helburuak hauek lirateke:

- fase bakoitzeko ikerketa-emaizak aurkeztea
- ikerketa-emaizten aplikagarritasunaren aukerak aztertzea

Gainera, kirol arloan hizkuntzaren gaia lantzen dabiltzan eragileen elkargune izan daiteke, eta kontrasteetarako oso foro baliotsua bihur daiteke.

Mintegi horretara gonbidatuko genituzke lantaldeetan aritzerik izan ez duten eragileak; esaterako:

- Garapen-taldeko kideak
- Ikerketa-taldean parte hartzen duten EHUko ikerlariak
- Erakunde finantzatzaileetako arduradunak [aukeran, beste zenbait (euskara zein kirol) teknikari]
- Kirol arloan hizkuntza gaiari erreparatzen dien aholkulari gehiago
- Soziolinguistika Klusterreko beste zenbait bazkide
- Kirol zerbitzuak eskaintzen dituen aholkularitza-enpresen ordezkariak
- Ikergai izan den kluba dagoen herriko udal (euskara zein kirol) arduradunak eta teknikariak
- Kirol klubaren edo federazioen, herrietako euskara elkarten... ordezkariak

7 LAN PLANA ETA KRONOGRAMA

Aurrez aipatu bezala, ziklo berriak hiru urteko epealdia du, 2020-2022 urte bitartekoa, alegia. Hauexek dira, urtez urte, egiteko nagusiak:

| | 2020 | 2021 | 2022 |
|--|------|------|------|
| Proiektuaren jarraipena | | | |
| Urteko egitasmoen definizioak | ■ | ■ | ■ |
| Lantaldeen jarduna: garapen-, ikerketa- eta aplikazio praktikorako taldeak | ■ | ■ | ■ |
| Foro zabala edo mintegia | ■ | ■ | ■ |
| Urteko balantzeak eta ebaluazioak | ■ | ■ | ■ |
| 1. Fasea: literatura zientifikoaren azterketa | | | |
| 1.1.- Egitasmoaren definizioa | ■ | | |
| 1.2.- Garapena | ■ | | |
| 1.3.- Emaizta: dagokion txostena osatu | ■ | | |
| 2. Fasea: definizio teoriko-praktikoa kirol elkarteetan testatzen: ZUZENDARITZA, LANGILEAK, BOLONDRESAK | | | |
| 2.1.- Egitasmoaren definizioa eta lokalizazioak | ■ | ■ | |
| 2.2.- Garapena | ■ | ■ | ■ |
| 2.3.- Emaizta: dagokion txostena osatu | ■ | ■ | ■ |
| 2.4.- Aplikazio praktikoa: lanketa eta zabalkundea | ■ | ■ | ■ |
| 3. Fasea: definizio teoriko-praktikoa kirol elkarteetan testatzen: ENTRENATZAILEAK | | | |
| 3.1.- Egitasmoaren definizioa eta lokalizazioak | | ■ | ■ |
| 3.2.- Garapena | | ■ | ■ |
| 3.3.- Emaizta: dagokion txostena osatu | | ■ | ■ |
| 3.4.- Ikerketaren azken txostena: ondorioak | | | ■ |
| 3.5.- <i>Aplikazio praktikoa: lanketa eta zabalkundea</i> ⁶ | | | ■ |
| 3.6.- <i>Hiru urteko ikerketa-zikloaren itxiera-ekitaldia</i> | | | ■ |
| A. Ikerketako “unitate didaktiko”tik (2018) tresna erabilgarri baterako prozesua | | | |
| 4.1.- Diseinua | | ■ | |
| 4.2.- Garapena | | ■ | |
| 4.3.- Tresnaren zabalkundea | | ■ | |

⁶ 2022ko urteko egitekoak aintzat hartuta, 3.5. eta 3.6. puntuen garapena 2023ko lehen hiruhilekora luzatuko dela aurreikus daiteke.

7.1 2020. URTEKO EGITASMOA

| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
|--|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|----|----|
| Proiektuaren jarraipena | | | | | | | | | | | | |
| Egitasmoaren definizioa | | | | | | | | | | | | |
| Garapen taldeko bilerak | | | | | | | | | | | | |
| Foro zabala edo mintegia | | | | | | | | | | | | |
| Urteko balantzea eta ebaluazioa | | | | | | | | | | | | |
| 1. Fasea: literatura zientifikoaren azterketa | | | | | | | | | | | | |
| 1.1.- Garapena | | | | | | | | | | | | |
| 1.2.- Emaita: dagokion txostena osatu | | | | | | | | | | | | |
| 2. Fasea: definizio teoriko-praktikoa kirol elkartean testatzen: ZUZENDARITZA, LANGILEAK, BOLONDRESAK | | | | | | | | | | | | |
| 2.1.- Egitasmoaren definizioa eta lokalizazioak | | | | | | | | | | | | |
| 2.2.- Garapena | | | | | | | | | | | | |
| A. Ikerketako “unitate didaktiko”tik (2018) tresna erabilgarri baterako prozesua | | | | | | | | | | | | |
| A.1.- Diseinua | | | | | | | | | | | | |
| A.2.- Garapena | | | | | | | | | | | | |
| B. 2019ko aplikazio praktikoaren jarraipena: UDA eta Real Sociedad | | | | | | | | | | | | |
| B.1.-Real Sociedad: itxiera-saioa | | | | | | | | | | | | |
| B.2.-UDA: entrenatzaileen lanketaren jarraipena eta itxiera | | | | | | | | | | | | |

Soziolinguistika Klusterra, 2020ko apirila.

8 ERANSKINAK

8.1 LANTALDEETAKO PARTAIDEEN FUNTZIOAK

Ondorioz, kide bakoitzari funtzio hauek esleitu zaizkio:

8.1.1 Ikerketaren zuzendaria

- Ikerketarako irizpideen eta metodologiaren definizioa eta gidaritza
- Ikerketa-taldearen lanaren jarraipena
- Garapen-taldean parte hartzea; ikerketa-emaitzen aplikagarritasuna lantzean, ikerketaren ikuspegitik zaindu beharreko gutxiengoa bermatzea
- Ikerketa-emaitzen zabalpena

8.1.2 Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria

- Proiektu osoaren arduraduna
- Erakunde finantzatzaileen arduradunekin harremanak, koordinazioa
- Garapen-taldearen dinamizazioa, eta bertako edukiak prestatzea, bereziki:
 - o Kirol klubak lokalizatorako
 - o Foro zabalaren edo mintegiaren antolaketarako
- Ikerketa-taldean parte hartzea, ikerketaren gauzapean nagusian aritzeko
- Aplikazio praktikoaren sorkuntzan, koordinazio lanak
- Ikerketa-emaitzen zabalpena

8.1.3 Erakunde finantzatzaileetako euskara teknikariak

- Proiektuaren jarraipen orokorra
- Erakunde finantzatzaileen arduradunekin harremanak, koordinazioa
- Garapen taldean parte hartzea eta bertako edukiak lantzea, bereziki:
 - o Kirol klubak lokalizatzeko laguntza
 - o Ikerketa-emaitzak aplikagarri bihurtzeko irizpideak ematea
 - o Foro zabalaren edo mintegiaren antolaketa
- Aplikazio praktikoaren sorkuntzan, gidaritza

8.1.4 Erakunde finantzatzaileetako kirol teknikariak

- Kirol munduko errealitatearen ezagutzatik ekarpenak egitea
- Garapen taldean parte hartzea eta bertako edukiak lantzea, bereziki:
 - o Kirol klubak lokalizatzeko laguntza
 - o Ikerketa-emaitzak aplikagarri bihurtzeko irizpideak ematea
 - o Foro zabalaren edo mintegiaren antolaketa
- Aplikazio praktikoaren sorkuntzan, gerta liteke egitekoren bat esleitzea (enkarguaren arabera)

8.1.5 EHUko ikerlariak

- Ikerketa-taldean parte hartzea
 - o Ikerketako irizpideen eta metodologiaren lanketa, egokitzapena eta aplikazioa
 - o Ikerketa-lanaren antolaketa eta gauzapean nagusia
- Unearen edo gaien arabera, garapen-taldean parte hartzea
- Ikerketa-emaitzen zabalpena (aukeran)

8.1.6 Kirol arloan hizkuntza gaietarako erreparatzen diren aholkularia

- Kirol munduko errealitatearen ezagutzatik ekarpenak egitea
- Garapen taldean parte hartzea eta bertako edukiak lantzea, bereziki:
 - o Kirol klubak lokalizatzea
 - o Ikerketa-emaitzak aplikagarri bihurtzeko irizpideak ematea
- Ikerketaren garapenean klub bakoitzean egingo diren aurkezpen, bilera eta gainerakoetan laguntza
- Aplikazio praktikoaren sorkuntzan, gerta liteke egitekoren bat esleitzea (enkarguaren arabera)

8.1.7 Soziolinguistika Klusterreko bazkide den erakundeko teknikaria

Kirol arloan hizkuntza gaietarako erreparatzen diren aholkulariaren funtzio berak izango ditu:

- Kirol munduko errealitatearen ezagutzatik ekarpenak egitea
- Garapen taldean parte hartzea eta bertako edukiak lantzea, bereziki:
 - o Kirol klubak lokalizatzea
 - o Ikerketa-emaitzak aplikagarri bihurtzeko irizpideak ematea
- Ikerketaren garapenean klub bakoitzean egingo diren aurkezpen, bilera eta gainerakoetan laguntza
- Aplikazio praktikoaren sorkuntzan, gerta liteke egitekoren bat esleitzea (enkarguaren arabera)

8.1.8 Kirol zerbitzuak eskaintzen dituen aholkularitza-enpresako ordezkaria

Oraingoz, ez da aurreikusitako ikerketa aplikatuan aktiboki parte hartuko duenik.

Interesgarritzat ditugun enpresak lehenengo forora edo mintegira gonbidatuko ditugu, eta, aurrera begira enpresa hauetakoren batek ekarpen handiagoa egin dezan beharko bagenu, ikerketa aplikatuan elkarrekin aritzeko eskainiko diegu interesa adierazi duten horiei. Orduan zehaztuko dizkiegu funtzioak.